

Bidebieta

Errotonda amaituta, etxebizitzak egiteke

Gomistegiko eraldaketak aurrera darrai. Errotonda amaituta dago jada, eta datorren urte hasieran 170 etxebizitza eraikitzen hasiko dira.

Duela aste batzuk Bidebieta eta Trintxerpe arteko errotondako lanak bukatu zituzten. Foru Aldundiko Errepide Sailak bideratutako lanak martxoan hasi ziren, eta helburua inguruko zirkulazioa arintzea da. Izan ere, Bidebieta eta Trintxerpe arteko bidegurutzetik ibilgailu ugari igaro ohi dira, bertan el-

kartzen baitira Trintxerpe eta Donostia arteko errepidea, saihebiderearen sarrera eta irteera, eta La Herrera industriagunera eta Pasaiaiko portura joateko bidea. Obrek iraun zuten bitartean, bestalde, Herrerako Euskotreneko geltokira joateko oinezkoentzako bidea itxita egon zen, baina dagoeneko zabalik dago.

170 etxebizitza

Udalak, Gomistegin bertan, 170 etxebizitza egingo ditu, horietatik 34 babes ofizialekoak. Hirigintza sailak aurreratu digunez, eraikitze lanei 2004 urte hasieran ekingo diete. Dagoeneko Lasa enpresaren

bulego eta bakailao biltegi zaharrak botatzen ari dira, bertan egingo baitira etxebizitzak gehienak. Beste batzuk, berriz, Kontadores ondoko orubean eraikiko dira. Etxebizitzak ez ezik, plaza bat eta 300 aparkaleku egingo dira inguru horretan.



Eli Gorostegi

GKE-n egoitza zabalik

Oporrak eta gero, zabalik dugu berriro ere Gobernu Kanpoko Erakundeen Koordinakundearen egoitza. Koordinakundearen ekimenen berri izan nahi duenak astelehenean, asteazkenean eta ostiraletan, goizez, eta asteartetan eta ostegunetan, arratsaldez, egoitzara (Kontadores eraikinaren atzealdea) joatea besterik ez du.

Lanak kiroldegan

Hilaren 13tik 21era bitartean Bidebietako kiroldegiko igerilekua itxita egongo da. Egun horietan igerilekua hustu eta hondoan garbiketa lanak eta konponketak egingo dituzte. Bidebietako igerilekuaren eraikitzaileak Donostiako beste igerilekuetara joan beharko dute. Altza, Anoeta eta Benta Berrikora, hain zuzen. Bestalde, hilaren 15ean, legioneraren aurkako garbiketa egingo dute auzoko kiroldegan. Ondorioz, itxita egongo da.

Gros

Udalaren erantzunik ez

Groseko zenbait elkartetan — Uliako Auzo Elkartea, Zurriola Ikastola, Mariaren Bihotza Ikastola eta abar — Manteon igerileku bat egitea eskatu zuten aspaldi. Gai horretaz hitz egin ahal izateko, Odon Elorzari bilera deia egin zioten otsailan. Zazpi hilabete geroago, erantzunik jaso ez izana salatuko dute elkarteok.

Garagardo zelaia

Urtero bezala, Garagardo Feria antolatuta du Bera Bera Rugby taldeak, Manteoko kiroldegan. Joan den larunbatean hasi zen arren, bihar arte —larunbata, hilak 13— baduzue hamabost garagardo mota dastatzeko aukera. Horretaz gain, txerri-ukondoa, patata purea eta saltxitxa alemaniarrek jateko aukera dute Manteo polikiroldegiko kantxara hurbiltzen direnek.



Estropadetarako menuak Marruman

Igande honetan, estropadak direla eta, menu bereziak eskainiko ditu Marruma elkarteak, 18.30etik aurrera. Ez dago aurrez erreserba egin beharrik, baina, nahi duenak 943 28 83 18 telefonora de dezake. Esan bezala, bazkariak Marruma elkartearen emango dituzte. Kale Berriko 12. zenbakian.